

**2007ko UZTAILAREN 26an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
OSPATUTAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2007ko uztailearen 26an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez  
Karlos Irazu Muñoa

Bere ezin etorria adierazi du:

Igor Barandiaran Perez de Arriluzea  
Iñigo Aginalde Lertxundi

IDAZKARIA: M<sup>a</sup> Eugenia Muñoa Irureta

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarreko aktak onestu, hala badagokio:
  - 2007ko uztailearen 5ean ospatutako ohiko bilkura.
  - 2007ko uztailearen 12ko ez-ohiko bilkura.
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
3. T. E. jaunaren eskaera aztertzea.
4. A. V. jaunak aurkeztutako eskaera aztertzea.
5. J. U. G. jaunaren eskaera aztertzea.
6. Tolosaldeko Mankomunitateari, egin beharreko ekarpena onartzea, hala badagokio.
7. Herri-ostatuko fidantzaren inguruan dagokion erabakia hartzea.
8. GSM baltzuekin sinatutako kontratu administratiboari amaiera ematea.
9. Zinegotzien bitzitza aseguru urte betez luzatzea, hala badagokio.
10. 2008 urterako Larraulgo festa ofiziala finkatzea.
11. Fakturak eta ordainketak.
12. Beste batzuk.
13. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

Bilkura 21.00 orduak direnean hasi da.

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### ***ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTAK ONESTU, HALA BADAGAKIO.***

- ▣ 2007 urteko uztailaren 5eko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren beratartuek aho batez onestu dute.
- ▣ 2007 urteko uztailaren 12ko Ez-Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### ***ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA***

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

19/2007 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 19koa, I. M. A. U. jaunari Kultur etxe atzekaldeko lursailean egin diren lanak legezatzeko dokumentazioa aurkeztu dezan eskatzea ebazten duena.

2007/20 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 19koa, 2007ko 2. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen errolda onartzen duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

### **HIRUGARREN PUNTUA**

#### ***T. E. JAUNAREN ESKAERA AZTERTZEA.***

Ikusirik T. E. E. jaunak 2007ko uztailaren 12an aurkeztutako idazkia, non U. auzoko garajeetako irteeran ispilu bat jartzea eskatzen duen.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Urbeltz auzoa 37, 38 eta 39 etxebizitzetako garaje irteeran ispilu bat ipintzea ikuspenera hobetzeko.

### **LAUGARREN PUNTUA**

#### ***A. V. JAUNAK AURKEZTUTAKO ESKAERA AZTERTZEA***

Ikusirik 2007ko apirilaren 3an espedientea hasi zela A. V. T. jaunak Larraulgo U. auzoko XX zenbakiko etxebizitzan udal lizentziarik gabe egin zituen lanak zirela-eta.

Ikusirik 2007ko uztailearen 5ean lan hauek legeztatzeke proiektua aurkeztu zuela.

Ikusirik 2007ko uztailearen 24an Udaleko Aholkulari Teknikaria den E. E. B. andreak luzaturiko txostenean eginiko obrak legeztatzearen alde informatzen duela.

Gaia azterturik bertaratuek, aho batez,

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- A. V. jaunak U. auzoa XX zenbakian eginiko lanak legeztatzeke aurkeztu duen proiektua onartzea, beti-ere Udaleko Aholkularia den E. E. B. andreak bere txostenean ezarritako baldintza bete beharko duelarik.

BIGARRENA.- Indarrean dauden ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

#### **BOSGARREN PUNTOA**

##### **J. U. G. JAUNAREN ESKAERA AZTERTZEA.**

Ikusirik 2007ko uztailearen 23an J. U. G. jaunak aurkezturiko idazkia, non bere jabetzakoa den O. lursailean itxitura bat egiteko baimena eskatzen duen. Eskararekin batera aurrekontua aurkezten da.

Ikusirik 2007ko uztailearen 24an Udaleko Aholkulari Teknikaria den E. E. B. andreak luzaturiko aldeko txostena.

Bertaratuek, gaia aztertu ondoren

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- J. U. G. jaunak eskaturiko obra baimena ematea.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

#### **SEIGARREN PUNTUA**

##### **TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEARI, EGIN BEHARREKO EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Ikusirik Tolosaldeko Mankomunitatea irailaren 1etik aurrera hiri-hondakinak jasotzeko eta garraiatzeko zerbitzua eskaintzen hasiko dela.

Ikusirik aipatu zerbitzuarengatik 2007ko iraila eta Abendua epealdiaren faktura 1.568,83 eurotako dena ordaindu beharra dagoela.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Tolosaldeko Mankomunitateari 1.568,83 eurotako ekarpena burutzea, 2007ko iraila eta Abendua epealdiko hiri hondakinen jasotze eta garraitze kontzeptupean.

#### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

#### **HERRI-OSTATUKO FIDANTZAREN INGURUAN DAGOKION ERABAKIA HARTZEA.**

Ikusirik I. P. LI jauna 2005eko urtarrilaren 13an Udalbatzak hartutako akordioaren ondorioz Larraulgo Herri Ostatu jatetxearen zerbitzu publikoaren kudeaketaren esleipenduna izan zela.

Ikusirik I. P. L. jaunak 3.000,00 eurotako bermea ipini zuela Larraulgo Udaletxean, Herri Ostatu jatetxearen zerbitzu publikoaren kudeaketa burutzeko kontratazio administratiboaren behin betiko berme moduan. berme horrek kontzesioaren betebeharrak guztiak garantizatzen zituelarik.

Ikusirik aipatu kontratu administratiboa 2006ko abuztuaren 6an iraungitu zela.

Ikusirik kontzesionariak, kontratua amaitu ondoren Herri Ostatu taberna jatetxeko instalakuntza eta lokalak okupatzen jarraitzen zuelako Udalak Udaletxeko eraikinean dagoen herri ostatu eta berari atxikitako etxebizitza berreskuratzeko prozedura administratibo eta judiziala jarraitu behar izan dituela.

Ikusirik Herri Ostatu taberna jatetxearen zerbitzu publikoaren esleipena arautu zuten klausula administratibo partikularrek xedatutakoaren arabera, emakidunak eraturako behin-betiko bermea jasotzeko eskubidea galdu egingo duela, bere betebeharrak edo kontratua ez betetzearen ondorioz.

Ikusirik kasu honetan kontratistaren ez betetzeak egon direla, larriena, kontratua iraungi eta herri ostatu taberna eta berari atxikitako etxebizitza libre eta utsik ez uztea.

Ikusirik, honez gain, kontratistak bere betebeharrak ez betetzearen ondorioz hainbat gastu jasan dituela Udalak, besteren artean:

- Ura eta Zaborra .....	910,72 €
- Alokairua .....	1074,24 €
- Argindarra.....	436,00 €
- Abokatuak.....	324,00 €

Ikusirik prozedura judiziala bukatu gabe dagoela eta honek gastu gehiago ekarriko dizkiola Udalari.

Ikusirik era berean Herri Ostatu taberna jatetxea ia urte betez itxita mantentzeak Udalari eta herriari suposatu dizkion kalteak baloratzeko aukera ere aztertu beharko litzatekeela.

Ikusirik Kontratistak, Larraulgo Udalarekin sinatutako kontratu administratibotik zetozkion obligazioak bete ez dituela eta bere jardunbideak Udalari sortu dizkion gastuak kontuan izan da

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- I. P. L. jaunari Herri Ostatu taberna- jatetxea zerbitzu publikoaren kudeaketa burutzeko behin betiko berme moduan ipinitako 3.000 eurotako fidantza ez itzultzea, Herri-Ostatua ia urte betez itxita izateak Udalari eta herriari sortu dizkion kalte-ordainak baloratu eta exijitzeko eskubideari uko egin gabe.

BIGARRENA.- Interesdunari akordio honen berri ematea.

#### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

**GMSM                    BALTZUAREKIN                    SINATUTAKO                    KONTRATU  
ADMINISTRATIBOARI AMAIERA EMATEA.**

Ikusirik Larraulgo Udalak eta GMSM Medioambiente, S.A. baltzuak udalerriko zabor bilketa zerbitzua eskeintzeko zerbitzu publikoaren kudeaketarako kontratu administratiboaren luzapena sinatu zutela 2005 urteko irailaren 27an.

Ikusirik luzapen horren iraupena gehienez ere urte betekoa zela eta beti-ere Tolosaldeako Mankomunitateak zabor bilketa zerbitzu mankomunatua martxan ipini artean.

Ikusirik 2006ko irailaren 28tik gaur egun arte Larraulgo Udala eta GSM SM enpresaren arteko kontratu administratiboa tazitoki luzatuta geratu dela.

Ikusirik 2007 urteko irailaren 1etik aurrera zabor bilketa zerbitzua Tolosaldeko Mankomunitateak eskainiko duela.

Gaia azterturik Udalbatzarrak aho batez ondorengoa,

*ERABAKITZEN DU*

LEHENA.- Larraulgo udalerriko zabor bilketa zerbitzu publikoa eskaintzeko GSM SM Medioambiente S.A. baltzuaekin izenpetutako kontratu administiboa amaitutzat ematea 2007ko irailaren 1etik aurrera, data horretatik aurrerantzean Tolosaldeko Mankomunitateak eskainiko baitu zerbitzua.

BIGARRENA.- GSM SM Medioambiente S.A. baltzuari akordio honen berri ematea.

**BEDERATZIGARREN PUNTUA**

**ZINEGOTZIEN BIZITZA ASEGURUA URTE BETEZ LUZATZEA, HALA BADAGOKIO.**

Ikusirik zinegotzien bizitza aseguru berri beharra dagoela.

Ikusirik Zurich aseguru etxeak luzaturiko proposamena, 1059,64 eurotako aseguru prima duena.

Bertaratuek, gaia aztertu ondoren, aho batez,

**ERABAKITZEN DUTE**

LEHENGOA.- Zinegotzien bizitza aseguru urte betez luzatzea eta 1059,64 aseguru prima ordaintzea.

**HAMARGARREN PUNTUA**

**2008 URTERAKO LARRAULGO FESTA OFIZIALA FINKATZEA.**

Ikusirik Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren 102/2007, DEKRETUA, ekainak 19koa Euskal Autonomi Erkidegoko langileen 2008 urteko jaiegun ofizialen egutegia onartzen duena.

Ikusirik egutegia osatzeko Udalek Tokiko Jai eguna proposatu beharra dutela.

Ikusirik Larraulgo jaiegun ofiziala abuztuak 3 San Esteban eguna izaten dela eta 2008 urtean igandea izango dela.

Gaia azterturik Udalbatzarrak aho batez ondorengoa,

### ERABAKITZEN DU

LEHENA.- 2007 urterako Larraulgo Udalerriko jaiegun bezala ondorengoa finkatzea:

Abuztuak 4 astelehena.

BIGARRENA.- Akordio honen berri ematea Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari.

### **HAMAIKAGARREN PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK.**

Alkate-Lehendakariak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

- TOMAS PRIETO ALBAÑILERIA .....	3.253,80 €
- GRAFICAS ORIA.....	162,40 €
- GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALA.....	24,50 €
- ULAHI.....	706,44 €
- ELECTRICIDAD ZIZURKIL.....	499,96 €
- DIONISIO ORMAZABAL, S.A. ....	29,37 €
- INDARBI, S.L. ....	12,01 €
- KIROLZER.....	136,25 €
- EL DIARIO VASCO.....	298,40 €
- IBERDROLA .....	130,81 €
- JUAN RAMON RUIZ LAGE .....	92,80 €
- ARGITU .....	156,14 €
- GSM .....	1.138,03 €
- FERRETERIA BARBE, S.L. ....	31,40 €
- GIPUZKOAKO URAK, S.A.....	2.671,56 €
- EUSKALTEL .....	57,45 €
- TELEFONICA.....	16,07 €
- TELEFONICA.....	19,41 €
- TELEFONICA.....	87,99 €
- TELEFONICA.....	0,70 €

- JUAN GOIKOETXEA ALBISU.....	7,25 €
- BABESA SUZAI, S.A.....	195,69 €
- SEIPA .....	638,00 €
- MANPEL.....	699,77 €
- ERROITZ .....	149,64 €
- GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALA.....	32,50 €
- UROLA TUBOS Y ACCESORIOS.....	27,86 €

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

#### ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Aipaturiko fakturak, denera 11.276,20 **Euro**tako kopurua osatzen dutenak onartzea.

#### **HAMABIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK.**

- **Tolosaldeko Mankomunitateari, 2007ko ekitaldiari dagokion bigarren ekarpena egite, hala badagokio.**

Ikusirik Tolosaldeko Mankomunitateak, 2007ko uztailaren 10ean eskainitako zerbitzuengatik aurkeztu duen 84/2007 faktura 3.016,99 eurotako kopurua duen eta 2007. Urteko 2. % 50 ri dagokiona.

Gaia azterturik, bertaratuek

#### ERBAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Tolosaldeko mankomunitateari dagokion 2007 urteko bigarren ekarpena 3.016,99 eurotako kopura duena onartzea.

- **Arrate Irratia, S.L-ren proposamena aztertzea.**

Ikusirik Arrate Irratia, S.L baltzuak bidali duen proposamena San Esteban eta San Bartolome jaietan herritarrak agurtu eta egitarauak argitaratzeko bere kostua 197,20 eurotako izanik.

Gaia aztertutik bertaratuek

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Arrate Irratia, S.L. baltzuak eginiko proposamena bertan behera uztea.

- **Olasagasti Arzallus Seguru korreduriak eginiko proposamena aztertzea.**

Ikusirik Olasagasti Arzallus seguru korreduriak udalaren defentsa juridikoa kontratatzeke burutu duen proposamena, urteko prima osoa 192,71 eurotako izango litzatekeelarik.

Gaia aztertu ondoren bertaratuek, aho batez

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Momentuz ez kontratatzea udalarentzat defentsa juridikoko aseguratik.

- **AAEN elkarteak aurkeztutako idazkiaren berri ematea.**

Ikusirik AAEN elkarteak aurkeztutako idazkia non Udalak antolaruriko zenbait ektaldik sorturiko autore eskubideei dagokien faktura ordaindu gabe dagoela adierazten den.

Ikusirik 2007ko apirilaren 3an AAEN elkarteari aipatu fakturan zerrendatzen ziren ikuskizunen eskubideak kudeatzeko eskuespena zuela egiaztatzen duen agiriren bat igortzea eskatu zitzaioela.

Ikusirik eskatutako informazio gehigarria ez dutela aurkeztu.

Bertaratuek, aho batez, gaia aztertu ondoren

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- 2007ko apirilaren 3an bidalitako informazio gehigarri eskaera berrestea, aipatu faktura ordaindu ahal izateko.

- **AECC elkarteak bidalitako idazkiaaren berri ematea.**

Ikusirik AECC (Euskadi Minbiziaren Aurka) elkarteak bidali duen idazkia non minbiziaren prebentzioan oinarritutako jardueren berri emten den, hala nola, birikietako minbiziaren sensibilizazio kanpaina eta azaleko minbizia prebenitzekoa.

Ikusirik elkartetik udalarekin elkarlanean aritzeko bi aukera luzatzen direla. Bata, udalerrian tabako talde bat martxan jartzea eta bestea, azalaren minbizia prebenitzeko posterrak eta triptikoak udalera banatzea.

Bertaratuek, gaia aztertutik

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- AACC elkarteari informazio gehiago eskatzea jarduera hauen inguruan.

#### **HAMAIRUGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkeztu.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 23.30 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

Xabier Mujika

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA

M<sup>a</sup> Eugenia Muñoa Irureta